

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 5499

*AGINDUA, 2024ko azaroaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena. Agindu honen bidez, saileko goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko egindako deialdia ebatzen da.*

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2.c) artikuluan eta sail honetan dauden lanpostu batzuk izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarri Hezkuntzako sailburuak 2024ko urriaren 8an emandako Aginduan (urriaren 18ko EHAA, 204.zk.) ezarritakoaren arabera, hau

#### EBAZTEN DUT:

1.– Elvira Pérez de Albeniz Casi andrea izendatzea Hezkuntza Sailburuordetzako goi-kargudunaren idazkari (520010-69 kodea, 18 maila).

2.– Izendapen honek 2024ko azaroaren 21etik aurrera izango ditu ondorio guztiak.

3.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen duenez, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean; bestela, administraziorekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administraziorekiko Auzien Epaitegian, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 20a.

Hezkuntzako sailburua,  
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.